

...eta **kitto!**

799 zkia. 2012-III-23

ASTEKARIA

Greba deialdiaren **AURREAN**



**50%
KRISTAL
GUTXIAZ**

50% off on crystal glasses. Promotion valid until 31/03/2012. For more information visit our website. All rights reserved. © 2012 Multiópticas.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

**Antonio Murillo
doktorea**

- PERIODONTZIA
- INPLANTOLOGIA
- AHO-KIRURGIA


**Ainhoa Zulueta
doktorea**

- ODONTOLOGIA
OROKORRA
- PROTESIAK
- ESTETIKA

**Susana Sierra
doktorea**

- ORTODONTZIA
- OKLUSIOA

Invisalign ortodontzia ikusezina



Incognito mihi-ortodontzia



Ortodontzia estetikoa eta ikusezina

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelera,
euskaratik
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.com



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidor Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidor Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Joseba Barrenetxea Altuna

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

IÑOREN PEKORA IBILLI.- Besteen bizkarretik bizi. "Bere bizi guztian, iñoren pekora ibilli zan, beste zintzo asko baiño hobeto".

IÑOREN PLANTAK EGIN.- Norbaiten imitazioa egin. "Kaitano eta Boni Txanboliñ, iñoren plantak egitten, gizon barregarrixak".

IÑOR IZAN.- Zeozertarako nortasuna edo adorea izan. "Iñor balitz, ointxe dauka aukeria bere burua aurrera ateratzeko".

ESKUTITZAK

30 FAMILIA KONPONBIDEAREN BILA

Eibarko 30 familiak bizi dugun egoeraren berri eman nahiko nuke; izan ere, lehen, bigarren eta hirugarren aukera gisa aukeratutako ikastetxeetan ezin izan ditugu gure umeak eskolatu eta orain Donostiako Hezkuntza Delegazioak erabakitzen duenaren menpe gaude.

Gure seme-alabak guk aukeratutako zentroetan sartzeko aukerarik ez izatea sinesgaitza da XXI. mendean. Eta orain Donostiatik esaten didate ziur asko nire semea Urkizuko eskolara eraman

beharko dudala. Gu Ipuruan bizi gara eta beraz, bi urteko haurra gure etxetik 2 km-ra dagoen ikastetxe batera eraman beharko dut, denok dakigunean ikastetxe bat esleitzerako orduan Eusko Jaurlaritzako arauen artean gertutasuna kontutan izaten dela.

Inork ez dit konponbiderik ematen, ikastetxeek esaten didate eurek ezin dutela ezer egin, gauza bera Eibarko Hezkuntza-ikuskaritza, eta Hezkuntza Delegazioan martxo amaierara arte itzaroteko

esan didate, eta zentro bat esleitzen digutenean nire semea Urkizura eramatea nahi ez badut, ez eskolatzeko, ez dela derrigorrezkoa. Zelan esan dezakete hori? Pegorara ere deitu dut eta esan didate eurek ez dutela hezkuntzaren gaia eramaten eta beraz, Eibarko udaletxeak ere ezin duela ezer egin.

Nire galdera da: zeinek eman-go digu konponbidea egoera horretan gauden 30 familiei?

LAURA

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren eguenerako iragarritako **greba orokorra** dela-eta, betiko moduan alea barixakuan kaleratuko bada ere, inprentara egun bat lehenago bidali beharko dugu; hori dela-eta, lan-prozesua ere egun batez aurreratu beharrean izango gara. Beraz, datorren astean edozer kaleratu nahi baduzue kontuan izan martitzenean itxiko dugula edizioa. **Barkatu eragozpenak.**

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Udaberriaren tenperatura altuak izango ditugu eta baita trumoi-erasoak ere; euriak ohikoak baino ugariagoak izango dira. Martxoaren azken asteak egun politak ekarriko badizkigu ere, apirillean Mediterraneo behe presioek ipar kutsuko haizea eta euriak ekarriko dituzte, hileak duen euritsu ospeari jarraituz; ez da komeni bufandak baztertzea oraindik. Maiaztean eta ekainean penintsulako behe presioek eze-gonkortasuna eragingo dute gurean, ekaitz erako euri-zaparradekin. Hori bai, udaberri beroa izango da"


(Euskalmet, Euskal Meteorologia Agentzia)

"Kontratenporen lehenengo egunak, hau da, eguaztena, eguena eta barixakua udaberrikoak izan genituen benetan: 20-22 graduren bueltan. Eguraldi gozoa, hego-mendebal puntutxoarekin, baina haizerik gabe. Udaberria nahiko gozoa izango da, nahiz eta tarteka itsasotik ere haizea sartuko den; hori bai, fundamentu txikiarekin. Euritik gutxiago izango du. Haize suabe horiek hor ibiliko dira eta, tarteka, mendebalarekin ekarriko du zaparradaxo bat edo beste. Udaberri loretsua eta polita datorrela dirudi."

(Pello Zabala, Arantzazuko frantziskotarra)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

asteko

253

datua

ume jaio ziren iaz Eibarren, 1.000 biztanleko %9'7a. Gipuzkoan, batz bestea, 10'21 ume jaiotzen da urtero mila biztanleko. Hori bai, aldeak daude herrien eta hirien artean; esaterako, Donostian kopuru hori %7'7ra jaisten da.

Armerixa Eskolaren errekonozimendua

ARMERIXA ESKOLAKO IKASLE-OHI ADIÑEKUENARI INSIGNIA EMON ZETSEN aurreko asteko eguenian **Bartolomé Arriola Garate**, aurtien 100 urte beteko dittuan eibartarrari. Arriolak 1929an ekin zetsan Mikromekanikia ikastiari, 16 urte zittuala eta ikasketak 1932xan amaittu zittuan. Pedro Arriola semiak eta haren emazte Jesu Bilbaok lagunduta, etxian pozarren jaso eban errekonozimendua Armerixa Eskolako Jose Luis Novoa, Jose Mari Ulazia eta Iñaki Alberdiren eskutik.

Bestalde, Armerixa Eskolakuak bixar eukiko dabe LXII. Batzar Nagusixa. 10.00etan



ekingo detse jardunaldixari, ziurtagirixak eta krabeliñak banatuta. Eguardixan, 12.30xetan argazki ofiziala etara eta ha maiketakua egingo dabe. 13.00ak aldxian, eskoliak antolatutako argazki-lehiaketako irabazlieri sarixak banatuko detsez eta jarraixan Antonio Gon-

zález Barro, Intercom Taldeko presidentiak "Qué hacen,cómo son las personas emprendedoras" izenburuko hitzaldixa eskinduko dau. Eskolia ikusteko bisitia amaittuta, 14.30xak aldera batutako guztak alkarrekin bazkalduko dabe, Armerixa Eskolako patixuan.



Gartzia, Vesga, Baskaran eta Aldalur. / SILBIA HERNANDEZ

Errebalgo proiektuaren fiskalizaziñua egingo da

BILDU ETA ARALAR TALDIETAKO ORDEZKARIXAK ERREBALEN EGINDAKO AGERRALDXIAN aditzera emondakuari jarraituta, "Herri-kontuen euskal epaitegixak udalari idatziz adierazi detsa Errebalgo proiektua fiskalizauko dabela".


Pozik hartu dabe barrixa eta gogora ekarri nahi izan "oin dala 6 urte PSE-EEren udal gobernuak egindako lurraren inguruko kudeaketa negargarixa". Euren berbetan, "lehelengo orubea saldu eban eta berau berreskuratzeko udaleko diru-

poltsak kalte haundixa jasan dau. Izan be, bide legalari jarraitu biharrian, Udalak enpresiarekin akordixua egittia erabagi eban eta horri aurre egitteko 1.320.234 euroko kreditua eskatu bihar izan eban".

Bestalde, udal gobernuak atzera be orube horren "sasi-salmentia planteatzen dabela" salatzen dabe: "PSE-EEren asmua lurra 99 urterako konzesiñuan emotia da, azken batian orube publikua pribatizaut. Gaiñera, Errebalen erabilleraren inguruko eztabaida publikorik ez da egon".

Lore eta Landareen II. Azoka izan zan Urkizun

ZAPATU GOIZIAN LORE ETA LANDARE AZOKIAREN BIGARREN EDIZIÑUA hartu eban Urkizuko parkiak, Udalak eta Debemen Debabarreneko Landa Nekazaritza Elkarteak, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren laguntzarekin antolatuta. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilarixak musikia ipiñi zetsen kolorez gaiñezka egiñ eban azokiari eta,



Klase askotako lorak eta landariak ikusi ahal izan ziran. / LEIRE ITURBE

horrekin batera, umiendako taillarra egon zan martxan. Bestalde, Zona Diez behealdeko dendari eta tabernarixen eskutik goiz osuan puzgarrixak eta bestelakuak egon ziran martxan Errebalgo apartokalekuan.

Alfakuak manifestaziñua deitu dabe bixarko

ATZO ALFAKO ENPRESA BATZORDIAK PRENTSAURREKUAN AZALDUTAKUARI jarraituta, "Alfako zuzendaritzak, azken lan erreformaren babesbian, soldatia %10 bajau nahi detse bihariñeri". Horren aurrarian, bixar 13.00etan manifestaziñua egingo da, Untzagan hasitta, "Alfan inposaketarik ez! Erreformarik ez!" leuari jarraituta. Horrekin batera hillaren 27, 28 eta 30erako errelebo bakotxian ordubeteko lanuztiak egingo dirala aurreratu dabe, "hillaren 29xan greba orokorra" egingo dabela gaiñeratuta.

Bildu, basarritarrekin hitzarmenak bultzatziaren alde

EIBARKO BILDUK UDALARI BASARRITARREREGIN HITZARMENAK BULTZATZEKO ES-KATU DETA. Bilduk diñuanez, "Eibarrek oso lur publiko gitxi dauka. Horregaittik, hitzarmen bittartez landa-lurrak alokai eta lur horretan bertoko landariak bultzatzea proposatzen dogu". Bilduko ingurumen eta landa garapenerako lantaldian diharduan Itziar Sapsootham geografian lizentziatua katastro partzelariotik hartutako datuekin egin daben azterketia eskuan, "azpimarratzekua da lur publikuaren zatirik haundixena Arrate eta Arrajola inguruan biltzen dala". Jakittera emon dabenez, "Udalak herriko basarritarr batekin 20 urterako hitzarmena sinatuta dauka, alokairuaren trukian bertoko landareria babesteko konpromisuarekin. Holako gehixago sinatuta, udala lurraren jabia izan barik be, ingurumenarekin bat egiten daben kudeaketia egitteko aukeria izango leuke, bertako abeltzainekin batera". Proposa-



tzen dabenaren alde onak azpimarratu nahi ditue: "Udalak lur gehixago kudeatuko leuke eta, gainera, basarritarrak onura ekonomikua izango leukie. Horrekin batera, herritarrei ingurumen-heziketia lantzeko esparrua eskinduko lieke". Ildo horretan, oin dala urte batzuk ospatziari laga jakon Zuhaitz Eguna berreskuratzea be proposatzen dabe.

Ate Irekixak Injeniaritza Eskolan

EIBARKO INJENIARITZA TEKNIKOKO UNIBERSIDADE ESKOLIAK HILLAREN 10-IAN OSPATU EBAN ATE IREKIXEN jardunaldia eta bertara jaundakeri Energixa Barriztagarrixen inguruko graduak eskintzen dittuan biharrerako aukeren barri emon zetsen, bestiak beste. Jardunaldia agurtzeko, ProiektEibar proiektu zientifiko-teknologikuen lehiaketako bosgarren ediziñoko sarixak banatuzittuen, Cristina Uriarte EHuren Gipuzkoako Kanpuseko errektoreordia buru izan eban ekitaldixan. Batxillererako lehelengo sarixa emon barik laga eban epaimahaixak eta bigarrena Barakaldoko El Regato ikastetxeko Asier Alabort, Gaizka Garcia, Endika Valtierra eta Ander Cumplidok jaso eben, "NXT bitartez kontrolautako negutegi aeroponikua" proiektuarekin. Goi maillako heziketa zikluetako ikaslien



ProiektEibar lehiaketako bosgarren ediziñoko sarixak banatzeko aprobetxau eben eguna.

atalian, barriz, lehelengo sarixa "Opel Astra. CPU&VDO. Motore baten CPU edo kontrol unidadia" proiektuak eruan eban (Errenteriako Don Bosco GL-HBlko Patxi Xabier Aduriz eta Mikel Gurrutxagak presentautakua) eta ikastetxe berian egindako beste bi proiektu (Lander del Rio eta Belai Irazabalen "Wii-Robot" eta Adrian Bon eta Borja Etxegoenaren "iCar") sarittu zittuan epaimahaixak.

Presuen eskubidien aldeko giza-kataia

OTSAILIAN EIBARKO HERRIRA SORTUZAN, "EUSKAL PRESO ETA IHESLARI guztiak etxera ekartzeko bidian, sufritzen daben salbuespen egoeriarekin amaitzeko" helbururari jarraituta. Bertako kidiak azaldu dabenez, "urtarrillaren 7xan Bilbon egindako manifestaziñua egundokua izan zan, baiña badirudi batzuek sekula ez dala nahikua euskal herritarren nahixa kontuan hartzeko. Gehixenondako itxaropenez beteta da-

guan egoeria zapuztia ezin dogu onartu eta, horregaittik, eibartarrei dei egittera gatoz, Bilbon egin genduan moduan, kalera urten eta egoerari bueltia emoteko beste ahalegin bat egitteko". Horretarako hillero, azken barixakuan, Euskal Herriko beste hainbat herritan egindakua bideetik, mobilizaziñua egingo da, hillebete honetan bertan hasitta: horren harira, martxuaren 30ian 19.30xetan Untzagan giza-kataia egingo da.

autuan

HIZKUNTZA ESKOLIA

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialak Kultur Astia antolatu dau: astelehenian 18.30xetan eskolan bertan (Jardiñeta, 3) frantsesez hitzaldia eskinduko dabe; martitzenian 18.30xetan Dsubstitutes taldiak Portalean kontzertua emongo dau, ingelesez; eguaztenian saio bikoitza izango da, greba deialdixa dala-eta hitzaldixa aurreratu dabelako, beraz 17.30xetan "Klein, aber fein!" hitzaldixa emongo dau Alexi Hoferrek Portalean (alemanieraz) eta 18.30xetan "Lurra, Lurra" izenburuko ikus-entzunezkoa emongo dabe Hizkuntza Eskolan (euskeraz).

ALKARTASUN ASTIA LA SALLE IKASTETXIAN

Astelehenaz geroztik Alkartasun Astia ospatzen dihardue La Salle ikastetxian, Isasin eta Azittainen. Urteroko moduan, kanpainia PROEGA ikastetxeko GKE-ren aldekoa izan da. Aurtengo languntasuna Argentinara bideratuko dabe, Córdoba hiriko Malvinas Argentinas auzoko Hector Valdivielso ikastetxera hain zuzen be.

OSPITAL-LURRAREN AZKEN ORDAINKETIA

Aurreko barixakuan pagau eban alkatiak notariarekin aurrian Mendiguren eta Zarrua fabrikiak bete eban lursaila pagatzeko falta zana, ospital barrixa jasotzeko bidian pauso bat aurrera emonda. Oin momentuan eraikuntza-proiektua egingo daben arkitekto-talde teknika kontratatzeko lizitaziñua egittekotan dagoz eta industria-orube izatetik osasun ekipamendu izatera pasatzeko tramitieri be ekin detse.

Etxean gastronomia giroa arnastu zuen txikitatik Marisol Guisasolak, eta kazetaria bada ere, elikadura izan du ardatz gehienetan bere idatzietan. 'La dieta holística' izeneko liburua kaleratu berri du eta hilaren 28an 'Bizitza 50 urterekin hasi daiteke' hitzaldia eskainiko du Armeria Eskolan (10.00etatik 12.00etara).

MARISOL GUIASOLA, kazetaria:

"Dietekin ez da sufritu behar: aukeratzen jakitearekin nahikoa da"

- 'La dieta holística' izeneko liburua argitaratu duzu. Zertan datza? Zer proposatzen du?

Urte asko daramatzat osasuna eta elikadurari buruz idazten. Txikitatik gustatu zait gaia, Txoko tabernakoen alaba naizelako, ama irakurle amorratua zelako eta elikadurari buruz berba asko egiten zigulako. Nutrizioarekin zerikusia duen zientziaren gaineko informazioa buru-belarri jarraitu dut. Ez naiz hainbeste interesatu nola argaldu daitekeen kontuaz, baizik eta zergatik argaltzen garen, fisiologiaren atzean zer dagoen, nutrizio eta obesitatearen gainean egindako ikerketetan... laburbilduz, ondo eta osasuntsu jatearen gainean. Horren inguruan argitaratzen den guztia irakurri eta nutrizioa ikertzen den unibertsitate garrantzitsuenak jarraitzen ditudanez, elikadurari buruzko ikerketa puntakoenak batu eta ondo jateko moduari buruz idatzi nahi nuen, 'mirari dietetik' at. Liburua irakurtzean informazio zehatza, oinarri zientifikoduna,

serioa eta puntakoa jasotzea zen nire asmoa. Nafarroako Unibertsitateko Klinikarekin (CUN) harremana nuenez (euretariko asko elkarrizketatu eta aspaldi ezagutzen nautelako), liburua bermatu dute, kazetari batek idatzitako liburu bezala izan zitekeen sinesgarritasun urriari balioa emateko. Javier Salvador doktorea, klinikako Endokrinologia eta Nutrizio Gunearen burua, Espainiako Endokrinologia eta Nutrizio Elkarteko presidentea da gaur egun; eta Gema Frühbeck Europako Obesitate Elkarteko presidentea da. Liburua bermatu duten erreferente garrantzitsuak dira biak. Urte askotako kazetaritza-lana da liburua eta zehatza izaten saiatu naiz. Ez da ale asko saltzeko pentsatutako liburua, ahalegin pertsonala baizik, "hainbeste urteren ostean hau da esan nahi dudana" bezela.

- 'Mirari dietek' markatzen duten ildo ezberdina jarraitzen du liburak. Zein iritzi duzu 'mirari dieten' gainean?

Ez dute inongo oinarri zientifikorik. Alderantziz, osasunarentzat kaltegarriak dira. Nire teoria da gizakia planetaren urte askotako eboluzioaren ondorioa dela, naturaren seme-alabak garela eta naturaren legeak errespetatu bizi behar dugula. Dietan ez du izan behar "argaltzeko hau egin behar dut", elikaduraren gainean hartutako erabaki eta gure bizimoduek naturak eskatzen dituen arauak jarraitu behar dituzte. Adibidez, ariketa fisikoa, gizakia mugitzeko eginda dagoelako eta ez geldirik egoteko; gizakia ahalik eta produktu naturalenak jateko eginda dago, gutxien prozesatutako elikagaiak eta modu arrazionalen. Zentzuna berreskuratu beharko genuke.


- Produktu naturalenak jatea komeni dela diozu, baina zenbatean dago hori kontsumitzaileen eskuetan?



Maila handian dagoela pentsatzen dut. Gauetan telebista ikusteko jarri, eta 'zaborjan' eta snack-ek inguratu naiteke; edo sagar xehatua, intxaurrek, gazta freskoa eta ardo kopatxo bat hartu dezaket (bat, ez hiru). Bigarren aukera hau naturalagoa da, sagarrak gure zelulak babesteko naturak sortutako konposatu ugari dituelako (fibrak, bitaminak, antioxidatzaileak...), intxaurrek garuna babesten duten Omega3-a daukatelako, ardo kopatxoak kardio-osasungarria delako eta gazta freskoak proteina-giharrak dituelako. Gure geneak milioika urteetan zehar ohitu diren elikagaiak dira azken hauek eta norberaren aukera da pizza edo horrelakoak jatea, edo sagar, intxaurrek edo gazta freskoa. Gaur egun litxarrerria asko jaten ditugu momentu askotan, gizendu egiten gara, gero argaldu nahi dugu eta jan barik sufritzen dugu. Nik proposatzen dudana da beti modu atseginean jatea, jaten duguna aukeratzen jakinda, zentzudunak izanik eta naturara hurbilduz. Ez da sufritu behar, aukeratzen jakin behar da.


- Pisia galdu gosea pasatu barik.

Hori da esan berri dudana. Ez da obsesioa izan behar elikadura kontuekin, baina nik janariak disfrutatu egiten dut, ahalik eta osasuntsuen jaten saiatzen naiz, eta egunen batean pizza zati bat jaten badut ere, ez dut osasuntsua ez dena arau bihurtzen.



Martitzenian ongi etorrixa emon gentsagun udaberriari eta zapatutik domekara ordubete aurreratuko dittugu ordularixak. Eguneko argixa aprobetxatzeko neurri moduan egitten da. Halanda be, munduko herrialde gehixenetan ez dabe halakorik egitten.

Zentzua ikusten detsazu ordua aldatziari?



CESAREO AZPILIKUETA
74 urte
jubilaua

Neri ez desta kalte egitten eta, onerako bada, ondo daguala begittantzen jata. Halanda be, ez dot uste gauzia asko hobetzen dabenik. Begittantzen jata umieri gehixago kostauko jakela goizian esnatzia ordu aldaketiarekin.



Mª CARMEN APELLANIZ
80 urte
jubilaua

Neri egunak luziak izatia gustatzen jata; orduan, neretako zora-garrixa da ordua aldatzia. Halanda be, jubilauta nago eta neretako bardiña da aurreko ordutegixa edo barrixa. Igual desta.


ALEX ETXEBARRIA
42 urte
komertziala

Emoten dau ordu batzuetan zezer aurreztu, baiña beste batzuetan gastatzen dala. Begittantzen jata Espaiñian ez dala aurrezten; beste herrialde batzutan akaso bai. Baiña, tira, Europar Batasunaren barruan gagoz eta onartu egin bihar da neurrixa.



Mª LUISA CALLEJA
80 urte
etxeakoandria

Nik ez dakat goiz jaikitziaren biharrik, baiña txarto begittantzen jata neurrixa, batez be umiengaittik. Izan be, eurak goiz jaiki bihar dira eskolara juateko eta ordu aldaketiak euren erritmua aldatzen dau.



EGOITZA NAGUSIA
Alfaroa 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errusketak laberak

Elgibarran (Signa poligonoan)

Farkilar, mutua eta azegun etxei zerbitzuak

Korazki - Eskalak - Urtsumeneko eskalak

Eskal Herri osoko ospitalean hartzen zaitugu

Nazio eta Nazioarteko tokiak

Mugica Ehorzketa
FARMACIA

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

irazabal
www.irazabal.com

KALITATEZKO OBRAK

Sukaldeak, komunak edo etxe osoak

Teilatuak, impermeabilizazioak, pabilioiak, bulegoak, dendak...

Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA

%5^{eko} DESKONTUA

SUKALDE eta BAINUGELA erreformatan (IGELTSERITZA lanetan)
maiatzaren 31ra arte

Lan-erreformiari aurre egiteko greba orokorra deittu dabe



Mariano Rajoy Madrillen boteria hartu eta segiduan ekin zetsan lan-merkatuaren erreformiari: 2008az geroztik estatu maillako langabetu kopuruak etenbarik gora egitten segitzen dabela ikusitta, horri bueltia emoteko aitzakixarekin otsaillaren 10ian errege-dekretu bittartez onartu eban erreformia. Rajoyk berak iragarritakua betetzera etorri ziran sindikatuak jarraixan, martxuaren 29rako greba orokorra deittuta. Enplegua sortzeko aitzakixarekin gobernuak onartu daben neurrixak justo kontrako emaitza lortuko dabela, hau da, enplegua suntsituko dabela pentsatzen dabe bihargiñen ordezkariak eta, horregaittik, grebarekin bat egittera animau nahi dittue herritarrak.

Eguazten goizian Eibarko hainbat eragille sozial, kultural eta politikok agerrialdixan egiñ eben, datorren asterako, martxuak 29rako deittuta dagan greba orokorrari babesa adierazteko eta, bide batez, "greba bultzatzeko bezperan, martxuaren 28xan 19.00etan Untzagatik abiatuko dan manifestaziñuan parte-hartzeko" inbitaziñua egitteko. Komunikabidien aurreko agerrialdixan mahaixan jarritta egon ziran ordezkariak Begoña Vesga (Alternatiba), Nerea Cas-

tro (EA), Iñaki Amuategi (Ezker Abertzalea), Sergio San Jose (Aralar) eta Asier Serrano (abeslaria) izan ziran eta azken horrek eus-

Lan merkatuaren erreformarekin datozen ALDAKETA NAGUSIXAK

- Kaleratziak merkiago izateko erreztasunak: kalte-ordaiñak jaitsi eta justifikaziño-arrazoiak arintzia. Oñ arte 45 egun pagatzen ziran biharrin jardundako urte bakotxeko eta mugia 42 hillebeteko soldatia zan. Erreformarekin, urte bakotxeko 33 egun pagauko dittue eta mugia 24 hillebeteko soldatia izango da. Lan agintaritzaren esku-hartzerik bako Enplegurako Erregulaziño Espedientiak (EEEik) eta EEEiak Administraziño Publikuan onartuko dittue.

- Kontrataziñuen prekarizaziñua: enpresa txiki eta ertaiñendako "lan kontratu mugagabia ekintzaillieri laguntzeko" dalakuarekin, lanaldi osoko kontratu mugagabia sortzen da. Praktiketarako kontratuan baldintzak okerrera egin dabe, 30 urtera arte luzatuta (lehen 25 urtietan eguan mugia); iraupena 2 urtekua izate-tik 3 urtekua izatera pasau da. Aldi baterako kontratuak bata bestiarekin atzetik katiatzen juateko aukeria zabalitzen da. Oñ arte debekatuta egon dan lanaldi partzialeko kontratuari ordu extrak egitteko aukeria erantsi detse.

keraz irakorritako idatzixari jarraituta, "bihargiñak errazago eta merkiago kaleratu ahal izango gaitue. Enpresariuari ahalmen osua emon detse bere enpresan nahi dabe-na egitteko: soldatak bajau, jardunaldixa luzatu... berez ez dake zertan hitzarmena bete. Enpresariuak ez dauka ezer negoziatzeko premiñarik eta negoziaziño kolektibua suntsitu dabe".

Euren ustetan, "krisixa atxakixa baiño ez da, aspaldidanik ezarri nahi zittuen neurri-xak ezartzeko. Gaztiak ez dabe enplegu egonkorrik ezagutuko, ez dabe lanaldi jakiñik izango, ez dabe negoziaziño kolektibua ezagutuko. Langabetuak gero eta gatxagua eukiko dabe biharra topatzia, erreformia ez dagualako enplegua sortzeko eginda".

Horren aurrian moduren batian edo bestian erantzun biharra daguala argi ikusten dabe: "Bihargiñok oñ arte jasan dogun erasorik gogorrenari aurre egitteko konpromisua danona da. Euskal Herrixan bizi eta biharra egitten dogulako gure lan-harremanak zihaztuko dittuan araudi propioa bihar dogu. Gure etorkizuna eta bizi-baldintza duiñak dagoz jokuan. Horregaittik danori, bihargiñeri, eragille politikueri, eragille sozialeri, dendari txixixeri, tabernarixeri, herritarreri tokatzen jaku egoerari bueltia emotia, posible dalako eta gure esku dagualako".

Bihargiñen eskubidien kalterako

Oinguan sindikatu guztiak bat egin dabe greba deialdixarekin eta erreformia bihargiñen eskubidien kontra doiala esateko orduan be ados dagoz. ELAtik azaldutakuaren arabera, lan erreformak "gaur egungo negoziaziño kolektibua hankaz gora jarriko dau. Ultra-aktibidadia (hitzarmena luzatzeko aukeria barrixa negoziatu bittartian), hitzarmen probintzialak edo-eta siñatutako hitzarmenen aplikaziñua indargabetzen dittu".



Enpresa munduan begi onez begiratzeko eta erreformia

LAN-ERREFORMIA ONARTU ETA JARRAIXAN "AURRERAPAUZO" MODUAN BALORAU EBEN ADEGI

Gipuzkoako Enpresen Konfederaziñoak eta Confebask Euskadiko Enpresarixen Konfederaziñoak. ADEGIko presidentia dan **Eduardo Zubiaurrek** irakorketa positibua izateko arrazoiak holan emon ditu: "Enpresak luzaruan eskatzen genduan erreformia da. Españian eguan lan-araudixa eta lan-harremanak oso zurrinak ziran, barrizatu biharra eguan, lehiakortasun egoera barri moldatzeko. Zurruntasun horrek kanbixatzen doiazten egoeretara moldatzen juateko orduan traba haundixak ipintzen zetsazen enpresari, egokitzapenak ziranak zirala be. Lan erreformak enpresan ipintzen dau fokua eta bittarteko batzuk emoten detsaz, horretarako arrazoiak daguazentian modu azkar, ekonomiko eta eragingarrixan kanbixuak egitteko eta atzera be biharra eta aberastasuna sortzia dan bere funziñua betetzeko".



Nuria López de Gereñu idazkari orokor dakan Confebask-ek be begi onez begiratzeko detsa erreformiari, langabezixako datuak etenbarik gora egitteko joeriari konponbidia ipintzeko bidian lagungarrixan izan leikialakuan: "Otsaila amaieran aurreko hillian baiño 3.463 langabetu gehixago eguan. 159.330 langabaturekin, ez da holako kopururik ezagutu 1989az geroztik. Egoeriaren larrittasuna kontuan hartuta eta alternatibak billatzeko eskaeraren aurrian, onartu barri daben lan erreformaren premiñia agerixan lagatzen dabe. Erreformiak barne-flexibilidaderako erreminttak emoten detsaz enpresari eta, konpetitibidadiari laguntziaz gain, enplegua sortzen eta daguazentian lanpostuerei eusten be laguntzen detsa. Lehenago onartu ezker, oin daguna baiño egoera hobia eukiko genduke".



Edozelan be, egoera ekonomikuari bueltia emoteko hori baiño gehixago biharko dala pentsatzen dabe enpresarixuak. Confebask-ek ekonomixia, konsumua, inbersiñua eta hazkundia atzera be aktibatzen lagunduko daben neurri barrixak eskatzen ditu, enplegua sortzen hasteko bide bakarra hori dalakuan. Eta ADEGIk krisixari aurre egitteko zeñi ekonomixari eta enpresen konpetitibidadiari bultzadia emoteko neurriak berehala hartzeko premiñia azpimarratu dau, bestiak beste enpresen konpetitibidadiari lagunduko detsan fiskalidadia eskatu barri dau Batzar Nagusixetan egindako interbenziñuan.

LABekundako "Madrillen dekretuz onartu dan lan-erreformia oiñ arte ezagutu dittugunen artian bortitzena eta sakonena da, kaleratziak erraztu eta langabezixa haundituko dittu".

CCOO sindikatuak, bestalde lan erreforma honek bereziki kaltetuko daben kolektibua daguala argi ikusten dau: "Gaztieri zuzentzen eraso egitten detse, ekintzaillendako kontratu mugagabe barrixetarako zabaltzen



daben aukeria azpimarratu bihar da. Bestalde, proba modura urtebete egon leike biharrian eta, epe hori amaituta, iñolako kalte-ordaiñik pagau barik kaleratzeko aukeria eukiko dabe ugazabak".

UGTkuak be argi ikusten dabe erreformak gaur egunian egon leikiazten desorekak are agotu egingo dittuala eta, bestiak beste, "prekarietadia eta aldibaterakotasuna haunditziarekin batera, oiñ arte lortutako eskubidiak desagertzia" ekarriko dabela. Gaiñera, lan merkatuan berez okerren daguazentari bereziki eragingo detsela diñue.

Gauzak holan, mobilizaziñorako dei zabala egitten dabe eta, bestiak beste, amore ez emoteko motiborik badaguala gogoratu nahi detse herritareri: "Greba orokorra planteatzen dan bakotxian gobernuak ez dabela ezer kanbixauko esaten dau beti, baiña 2002xan, greba orokor arrakastatsua- ren ondoren, Aznarren gobernuak planteatutako lan-erreformia kanbixau bihar izan eban, ez jakon beste aukerarik geratu". Horregaittik, datorren asterako deitutako grebarekin itxaropentsu dagoz sindikatuetakordezkarixak.




JAIME IBARRA BEASKOA "JYMMY"

2012ko martxoaren 16an hil zen, 58 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



TEEN-
AUEA



8 kidek osatzen dute Arrateko UCAS erreskateko txakurren Eibarreko unitatea. Mikel Badiolak Kena artzain txakurra du 23 urteko eibartar honek, eta txakurrak erreskaterako nola prestatzen diren eta animalia hauek egin dezaketen gauza harrigarriak kontatu dizkigu.

MIKEL BADIOLA (Arrateko UCAS):

“Zure txakurra ondo ezagutu behar duzu”

- Nola animatu zinen UCASen sartzera?

Lagun batekin txakurren heziketarako ikastaroa egin nuen eta Eibarren UCAS zegoela jakin genuen. Valeriano UCASeko arduradunarekin kontaktuan jarri eta horrela hasi ginen.

- Zer egiten duzue UCASen?

Bazkide bakoitza bere txakurrarekin joaten da eta txakurrak erreskaterako entrenatzen.

- Nolakoak izaten dira entrenamenduak edo ariketak?

‘Cortos’ deitutako ariketak egiten hasten gara; hau da, txakurrak ikustea zuk daukazula berak nahi duen jostailua, ziria sartu pixkat bat eta arineketan hasi berak ikusteko nora zoazen. Ariketak egiten hasten gara, izkututzen eta abar: txakurrak ehiza ulertzeko egiten dugu.

- Zer du txakur batek erreskaterako gizakiak ez duena?

Usaimena! Eta azkartasuna. Bost minututan pertsona bat erreskatatu dezake; guk egin beharko bagenu, askoz luzeago joko luke erreskateak. Hondakinen artean berak markatzen du non dagoen pertsona. Metro askotara usaindu dezake pertsona bat, sinestezina da.

- Jabe moduan, nola ikusten duzu txakurra horrelako gauzak egiten?

Oso pozik! Nire txakurra ez da operazioetan ibiliko, horretarako nagusia delako (txakurkume bat hartuko dut). Baina pistetan ibiltzen da eta beste txakurrak egiten dituzten ariketak egiten ditu. Askok gustatzen zaio jolastea eta txakur bat gauzak egiten badabil, pozik dago.

- Egin duzue erreskaterik.

Ez, niri ez zait tokatu egitea.
- Zerbait egin behar izanez gero, zein izango litzakeke zuen jokabidea?

Erreskatearen arabera izango da hori. Zure txakurra ezagutu behar duzu, nola egiten duen zaunka, zelan mugitzen den, eta abar. Txakur bakoitza ezberdina da, beraz, zurea ondo ezagutu behar duzu. Orduan, erreskatea egin behar den lekuan uzten duzu (edo erreskatea egin behar dela uste duzun lekuan, biktima aurkitzea delako kontua) eta berak egiten duena adi aztertzen duzu. Zuk ondo ezagutzen duzunez, zerbait adierazten dagoela edo norbait aurkitu duela jakin dezakezu.

San Andres
Gozotegia

● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelarik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

Funk Off!, musika on

"Musika ezberdinarekin parranda berdina egitea". Hori da Funk Off!-ek eskaini nahi duena. Funky, soul-house edo funky-house bezalako musika alai eta dantzagarriak ekarriko ditu (besteak beste) Eibarrera egitasmoa honek eta, dagoeneko, lehen festak baditu data, ordu eta izenburua: martxoaren 31ean, Koxkor tabernan, 'Get down to the Soul Room'.

Horrela erantzuten die Funk Off! ekimeneko bultzatzaileek eibartarron dantzarako gaitasunaren gaineko galderari: "Jendea 'Ai se eu te pego' dantzatzeko gai bada, zergatik ez funkya edo musika beltza? Errazagoa da, ez dauka koreografiarik, eta musika sentitu eta disfrutatzearekin nahiko da". Aukera, beraz, hor dago.

Dantzarako gaitasun hori erakusteko, Koxkor tabernan 'Get down to the Soul Room' izeneko festa egingo da hilaren 31ean 00.00etatik aurrera. Erabat doan eta edonorentzako irekia ("batez ere gauean entzun daitekeen musikaz aspertuta dagoen jendarentzat"). House musikaz gain, disko, funk eta rock dantzagarria egongo da entzungai, sorpresa, argazkilari eta beste hainbat kontu gehiagorekin batera.

Zergatik sortu Funk Off!?

Proiektu, "edo enbajada", honetan dabil-tzan kideek gauza bera zuten amankomunean, "Eibarko musika, ordu batzutatik aurrera batez ere, ez zaigula asko gustatzen, errepikakorra eta barietate gutxikoa dela eta hautatzeko aukera gehiegirik ez dagoe-

la pentsatzen dugula". Hortaz berbetan, ideia "handitzen eta handitzen" joan zen eta Funk Off! sortu zuten. "Gainera, taldekoei asko gustatzen zaigu bidaiatzea eta horrelako ekimen asko ikusi ditugu, gu baino elektronikoak (Londresen, adibidez), baina inspirazio bezala balio digutenak". Hala ere, ez da Londresera joan beharrik, eurek azaltzen dutenez Bergaran eta Durangon ere egin direlako antzeko saiakerak, "baina gehienak musika elektronikora bideratuta daude".

Estilo-sorta zabaldu

Funk Off!-ek eskaini nahi duena da gaugiroan dauden aukeretatik desmarkatzea eta estilo-sorta zabaltzea. "Eibarren badago parranda, ordu txikietaraino gainera, baina musika oso homogeneoa eta errepikakorra da". Barietate gehiago behar dela irizten diote, "pixka bat arriskatzeara". Oinarri bat daukate, "2.000. hamarkadako soul-house edo funky-house musika alai eta dantzagarria, baina hortik kanpo estilo guztiak ukitu-

ko ditugu". Horrela, lehen festa honek 'Get down to the Soul Room' izenburua badarama ere, "hurrengo beste estilo batekoa izan daiteke".

Momentuz Koxkor tabernakoa izango da aurreikusten duten saio bakarra, "baina ondo irtetzen bada, badauzkagu ideia batzuk buruan". Era berean, jendea euren Facebook-eko orrialdean sartzeko gonbidatzen dute (www.facebook.com/FunkOffcrew), festei buruzko informazioa jaso eta sarea euren gustoko musikarekin betetzeko.




Otaola etorbidea, 3 - atzea (Hiper Eroskiren alboan)

Iruki

Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com
www.irukieibar.com



GAZTEMENUA

barixaku gauetan
txotxa eta garagardoa barne

DENA
18 €
BARNE



**Entsalada mixtoa edo
Bakailao tortilla edo
Bakailao konfitatua**

**Txerri-saiheskia parrillan edo
Ollasko errea parrillan edo
Okela gisatua**

(Hirurak patata goarnizioarekin)

**Gaztaia, intxaurrek
eta membrilloa**

Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

OTEGUI

HARATEGIA

Etxeko plater kozinatu
eta aurrekozinatuak


Mobila. 652 77 25 42
Telefona. 943 82 05 24
Urkizu, 28



Orain zaldikia (moxala)



ere badugu





1913-VI-19an kaleratutako berri honetan ikusi daiteke aurten mendeurrena ospatzen duen Armeria Eskolaren inguruan zenbat zalantza zeuden bere kokaguneen inguruan



1956. Aldatzeko Probidentziako Amaren ikastetxearen handitze lanak. Joaquin Dominguez Elozegi arkitektoaren proiektua Natividad Azkarate Otxotorenak (Sor Maria Javier) aurkeztu zuen ikastetxearen izenean. / EIBARKO UDAL ARTXIBOA.

Gaurko Udal plenoa interes berebizikoa izango da eta, eguneko ordenean hogeitai badiu ere, batek bereganatuko du interes gorena: Armeria Eskolak. Ez da beste gairik kaleetan eta denetarik iritziak biltzen dira bere inguruan. Arazo asko daude bide bat egiteko lehenengo harria jarri zen tokiraino eta askok, gainera, zezen-plaza botatzearen aurka daude, uste baitute, nahiz-eta zezenketarik ez egin, beste edozein ikuskizun eskaini daitekeela bertan. Armeria Eskola non eraikitzeari begira ez da hori desadostasun bakarra eta badira beste ideiaia batzuk ere: batzuk uste dute Alfontso XIII. plazan eraiki beharko litzatekeela, zinea dagoen orubean; badira Calbetón kalea aproposa ikusten dutenak, Okamika jostunaren etxea bota eta bertan jasotzeko. Eta ez dira falta egokitzen jotzen dutenak Gardia Zibilaren koartela dagoen lekuan eraikitzea. Biztanleak banatuta daudenez, espero dezagun Udalak gaur ez hartzea behibetiko erabakia eta, informazioa zabalduz, plebiszitoaren alde jotzea.

XX. mendearen bueltan

1913ko aste askotan 20 ezkontza ospatu ziren gure herrian

TOMAS ETXALUZE "La Voz de Guipúzcoa" Donostiako egunkari errepublikarrean Eibarko korrespondentia izan zen XX. mendearen lehenengo herenean. Hemen ditugu 1913an kaleratu zituen hainbat informazio, orduko Eibarren irudia eskaini dezaketena; argi dago beste errealitate bat bizi zutena.

1913ko San Pedroetan ikuskizun berezia izan zuten orduko eibarrarakek

Ikaragarrizko gogoia du jendeak biharko iragarritako abio ikuskizuna begi aurrean izateko. San Pedro berezia izango da biharkoa eta goi mailako hegaldiak goizeko 11.00etatik 12.00ak arte eta arratsaldeko 18.00ak eta 19.00ak artean izango dira. Aparatoa, behin bere matxurak konponduta, estalpean dago gordeta, behar bezalako probak burutu eta gero. Marius Terce pilotok filigranak egiteko asmoa du eta, hain gogotsu ikusten zaio, 2.500 metroko altueraraino igotzen saiatuko dela. Ikusita ekitaldi horren inguruan piztu den interesa eta jende uholdea aurrikusiz, Ferrocarriles Vascongados-eko Konpainiak gaueko 10.30etan irtengo duten bi tren berezi prestatu ditu: batek Bergara aldera joko du eta bestea Bilboraino joango da. Halako erosotasuna eskainita, pekatu larria izango litzateke bihar Eibarrera ez etortzea. Eta beste gauza bat: etzi, zaletuek horrela eskatuta, "Quo Vadis?" pelikula emango dute berriro Aste Lena (sic) frontoian. Hori bai, sarrera merkeagoekin.




Langileen arteko solidaritatea (azaroak 6)

Riotintoko meatzariak euren borrokari eutsi diezaiten, hona hemen Eibartik bidalitako laguntza: Sociedad de Pistoleros (150 pezeta), Centro Obrero, Cooperativa Socialista Obrera eta Círculo Socialista (100 pezeta bakoitzak), Sociedad de Escopeteros (75 pta.), Sociedad de Pulidores eta Sociedad de Moldeadores (50 pta. bakoitzak), eta Sociedad de Grabadores en Damasquinado, Juventud Socialista eta Oficios Varios (25 bakoitzak). Pistola egillien Batzar orokorrian egindako diru-bilketan beste 37 pezeta jasoziren. Guztira, beraz, 737 pezeta Riotintoko beharginen grebak eragindako gastuei aurre egiteko.

Zoritxarra Merkatu Plazan (urriak 23)

Gaur goizean, 07.00etan, iritsi da gure herriko Merkatu Plazara Elgetatik zetorren baserri bat: Francisca Lamarain, 30 urtekoa eta ezkondua. Asto batekin zetorren eta salmentarako hainbat jangairekin. Behin jeneroa deskargatuta, zamaria kortara zeramala, energia elektrikoaren eroalea zen kable batekin egin du estropozu aberetak, bertan zerraldo geratu da. Jabeak erredura arinak jaso ditu ezkerreko eskuan.



Armak (uztailak 29)

Azken hilabeteen 72.385 arma exportatu dira, iaz hilabete berean baino 14.436 gehiago. Exportazioak horrela banatzen dira: 50.436 errebolber, 9.496 pistola automatiko, sistema askotako 6.864 pistola, 4.187 pistoiko eskopeta, su zentralerako 1.719 eskopeta, Lafeubeux-eko 343 eskopeta, saloiko 244 eskopeta, Remington-eko 203 eskopeta eta marka bereko 41 terzerola.


Hierros Anetxe zaletuei igoera eskaintzeko asmoz

EIBARKO ERRUG- BI TALDEAK KAN- PORAKETA IA ERA- BAKITA LAGA ZUEN AVILÉSEN

eta, aurreko zapa-
tuan 10-45 emaitzaz
lortutako garaipena-
rekin, Unben etzi
maila igotzeko auke-
ra bikaina izango du.
Zaleei gozarazi eta
lorpen hori merezi
moduan ospatzea
dute helburu orain
Isasaren mutilek eta, jarraian,
2008-09 denboraldian eskura-
tu zutena errepikatu nahiko du-



te: Nazional Lehen mailako ti-
tulua bereganatzea. Unbeko
partidua 15.00etan hasiko da.



Azpiazu, El Moussaoui eta Vouilloz Euskadiko txapelketan irabazitako dominekin.

Herriko atleten emaitza handiak hainbat txapelketetan

**KADETE, JUBENIL ETA JU-
NIOR MAILETAKO EUSKADI-
KO PISTA ESTALIKOAN,** esa-
terako, Tomas Vouilloz (jubeni-
la) onena izan zen jauzi hiru-
koitzean, 2.a altueran eta 3.a
hesietako 60 metroan; Ainhoa
Azpiazu, bestalde, 3.a izan zen
pisu jaurtiketan, eta podiumetik
gertu izan zen Ibrahim El
Moussaoui (4.a 400 metroan).

Jaurtiketa luzeen Euskadiko
txapelketan, bestalde, xabali-
narekin Odei Jainaga onena
izan zen kadete mailan eta Az-
piazu (kadetea) eta El Mous-
saoui (jubenila) bigarren pos-
tuetan sailkatu ziren; diskoare-
kin, bestalde, Martin Vouillo-
zek irabazi zuen junior mailan
eta Azpiazu 2.a izan zen kade-
teetan.



Bederatzi domina irabazi zituzten Kalamuakoek Astilleron.

Herriko judokak nagusi Astilleron

**URREZKO BOST DOMINA ETA ZILARREZKO ETA BRONTZEZ-
KO BINAREKIN ETORRI ZIREN** Kalamua judo klubeko ordezkariak Astilleron jokaturako XVII. San Jose torneotik; han izan zen ere, epaile lanetan, klub bereko Garikoitz Del Barrio. Etzi, bestalde, Lezon jokaturako den infantil mailako Gipuzkoako txapelketan izango da Iker Martínez eibartarra; domina baten jabe egingo dela itxaropen-
tsu daude taldean, jakitun gainera Euskadiko Jokoak Eibarren izan-
go direla eta domina horrek bertan izateko aukera emango ziola.

Puntu bakarrak erabaki zuen saskibaloiko derbia


**KATU-KALEK GOGOR EGIN ZION AU-
RRE BIRTUALKI MAILA IGOERA IA ES-
KURATUTA** duen Ruibal sailkapeneko lide-
rriari eta, Ipurua kiroldegian jokaturako eibar-
tarren arteko derbian, puntu bakarrarengatik
galdu zuen. Katu-Kalekoek bikain hasi zu-
ten partidua, baina atsedenaldirako Ruibale-
koek aurrea hartu zioten (31-36). Bigarren
zatian Ruibal aurretik joan zen, baina parti-
duaren amaieran gauzak zeharo estutu zi-
ren, segundo eta erdiren faltan Azurmendik
tiro librea gauzatu zuen arte. Bera izan zen Ruibalen saskiratzaile
onena, 15 punturekin; Katu-Kalen Horcajada (12 puntu).



Koskor txapelduna foball-zaletuan lau jardunaldiren faltan

**INOIZ BAINO LEHENAGO ERABAKI
DA KIROL-JOKOA FOBALL-ZALE-
TUAREN LIGA TXAPELKETA,** lau jar-
dunaldiren faltan 14 puntuko alde ken-
tzen baitio Koskor txapeldunak bere
atzetik sailkatutako Alkidebari. Azken
jardunaldian Koskorrek Living Caféri (2-

1) irabazitako neurketak erabaki du aurtengo liga -lehendik ere erabakita ez bezalagoen-, hori Alkidebak ere berea irabazi bazuen ere, C. Murillo 7-3 egurtuz. Bigarren posturako lehian, Alkidebari jarraitzen dion Durango (lau puntura) erraz nagusitu zitzaion Bar Aretori: 6-1.



Osoro anaiak bikain Baqueiran

LAROGEITIK GORA PARTE-HARTZAILE IZAN ZITUEN ASTEBURUAN JOKATUTAKO freestyleko "Desigual Slope Style" ope-
neko lehenengo edizioak eta Pello eta Txomin Osoro anaiak, fina-
lera pasatzeaz gain, oso
goian amaitu zuten: Txo-
minek 2. postua eskura-
tu zuen 16 urtetik behe-
rakoen mailan eta Pello
podiumekoengatik gertu
saikatu zen helduen ar-
tean. Biek ere meritu
handiko jauziak egin zi-
tuzten.




Figura ikusgarriak eskaini zituzten Osorotarrek.

Bestalde, iraupen es-
kian, Candanchun joka-
tutako Trofeo Valle Ara-
gón-eko 1. edizioan, Jo-
ne Saez eibartarra 4.
postuan saikatu zen es-
kating modalitateko in-
fantil mailan, bost kilo-
metroko proba beteta.



Bederatzi eibartar "Agiñako mendi-lasterketan"

**DOMEKAN JOKATUTAKO 14 KILOMETROKO ETA 800 METRO-
KO AGIÑAKO MENDI-LASTERKETAN**, bederatzi izan ziren gure
herriko ordezkariak, honako saikapenarekin: 7. postuan, Jose Ma-
ri Bernedo (1h08'10"); 10.ean, Igor Fernández (1h09'43"); 15.ean,
Igor Gallastegi (1h10'04"); 32.ean, Juan Ramon Rodríguez
(1h14'46"); 33.ean, Raul Fernández (1h14'48"); 45.ean, Aitor La-
meiras (1h17'54"); 48.ean, Oscar Gisasola (1h09'53"); 53.ean,
Edu Uribe (1h19'53"); eta 85.ean, Agustin Lamariano. Gure herrian
jokatuko den hurrengo mendi-lasterketa Galdaramiñokoa izango
da, ekainaren 10ean.



Ermuko III. Duatloia jokatu da bihar

**EUSKAL HERRIKO DUATLOI ZIR-
KUITOKO ZAZPIGARREN PROBA
JOKATUKO DA BIHAR** Ermuan.
Parte-hartzaileek bost kilometro an-
tixiketan, 20 bizikleta gainean eta
beste bi eta erdi korrika berriro egin
beharko dituzte. Proba arratsaldeko
17.00etan hasiko da eta irteera, hel-
muga eta boxeak Cardenal Orbe
plazan kokatuko dira.



Asola-Berrik egun handia bizi izan zuen domekan

**URTE BEREZIA DA HAU ASOLA-BERRIKO-
ENTZAT ETA HORRELA DIHARDUTE OSPA-
TZEN.** Domekan egun handia izan zuten, bai
bolatokian eta baita mahaiaren inguruan ere,
bazkariak gozatu eta bazkideen arteko sari na-
gusia jokatzeko aukeraz baliatzeko. Azken ho-
netako txapelak horrela banatu ziren: emaku-
mezkoetan, Olaitz Rodríguez nagusi, Miren Dí-
ez eta Sonia Gómezen aurretik; gizonezkoet-
an, Ibai Díez nagusi, Mikel Urkia eta Bittor Ro-
dríguezen aurretik; gaztetxoetan, Xabier Solo-
gaistua izan zen onena, Malen Abajo eta Gor-
ka Gil-en aurretik; eta gazteetan Egoitz Blanco
izan zen onena.

Deporreko xakelariak garaile Billabonan

**ZAPATUAN BILLABONAN JOKATUTA-
KO GIPUZKOAKO TALDEKAKO TXA-
PELKETAREN** azkenaurreko jardun-
dian, Klub Deportiboko xake taldeak 1-3
irabazi zuen Billabonan. Jon Aranak eta
Xabier Beorlegik irabazitako partidei, Ju-
len Garrok eta Edu Olabek berdindutako-
ak gehitu zizkieten porrotik gabeko jardun-
aldia osatzeko. Bihar lehiaketa horreta-



ko azken jardunaldia jokatu da Depo-
rren: eibartarrek Beasaingo Alfil taldea-
ren ordezkariak hartuko dituzte.

Bestalde, domekan eskolarteko txapel-
ketaren 2. jardunaldia jokatu da Klub
Deportiboan (10.15etatik 13.30etara).
Aurreko asteburuan 14 parte-hartzaile
izan ziren: sei alebin eta infantil mailetan
eta zortzi benjamin eta aurrekoetan.

Binakako pilota txapelketa Astelenan

XALA-LASKURAIN BIKOTEAK AZKEN AUKERA IZAN DEZAKE binakako azken fasera pasatzeko Katedralean domekan jokatu den partidu nagusian; hor Bengoetxea VI.a-Apraiz izango dute aurkari. Jaialdia hasteko, Retegi Bi-Cecilio eta Ezkurdia-Zabaleta bikoteek neurtuko dituzte indarrak eta, amaitzeko, bestalde, Olazabal-Ladis Galarza eta Ongay-Larrinaga izango dira, nor baino nor.

Bestalde, afizionatu mailan, Eibarko Klub Deportiboko ordezkari dagokienez, Andonegik eta Lantz-ek 20-22 galdu zuten Ipuruan jokaturako Udaberri Torneoko jubenil mailako finalerdian. Gaur, 20.00etan, torneo bereko kadete mailako finalerdia jokatu da Astelenan: Santa Mariak eta Narbaizak arrasatearrak izango dituzte aurrean eta, senior mailan, Larreategik eta Egañak Oiartzungo ordezkari egingo diete aurre.

Eibar KE-k 4-0 galdu zuen Ponferradan

ASPALDIKO ZIGORRIK GOGORRENA JASO ZUEN

Javier Mandiolaren taldeak herenegun, Ponferradinaren aurka 4-0 galdu-ta. Hala ere, zortzi puntuko koltxoia du 5. postuan sailkatutako Alavésékigo goerako promozioa jokatzeari begira.

Domekan Gimnástica Segoviana hartuko dute Ipuruan, 18.00etan hasiko den neurketan, hiru puntuko eskuratzeko asmoarekin. Hurrengo aurkaria gaur egun hamar puntura duen Mirandés liderra izango da, Anduvan. 3. mailako Eibar B-k, bestalde, Santutxun jokatu du asteburu honetan.



Autoen Abarth Puntuaren aurkezpena

ABARTH PUNTO I. KOPA AURKEZTU ZEN GUEÑESEN

eta, Rallyetako Euskal Txapelketaren barruan jokatu den sari horretan, gure herriko Engimek enpresak garatu ditu erabiliiko diren suspentsioak.




Abarth Kopak zortzi proba puntuagarri izango ditu, tartean Eibarko El Corte Inglés Rallysprint-a. Txapelketa maiatzaren 5ean hasiko da, Azpeitiko Rallysprint-arekin

Ane Ziaran podiumean Basaurin

EIBARTARRAK BIGARREN POSTUA ESKURATU ZUEN,

Saioa Oliteren atzetik, duatloiko Euskal-nafar Zirkuituan parte hartzen zuen lehenengoko proban; horrez gain, onena izan zen 23 urtetik azpiko mailan.



Proba horretan Eibar Triatloi Taldeko beste bi ordezkari ere parte hartu zuten: Andoni Mayok 44. postuan amaitu zuen proba eta Juan Jose Romerok 78.ean.

Tekniker Eibar Eskubaloia Euskadiko sektorean izango da


EUSKAL LIGAKO KADETE MAILAKO TALDEA EUSKADIKO SEKTORERAKO SAILKATU DA

aurreko fasean partidurik galdu gabe; azken jardunaldian Loyola Indautxuri 28-29 irabazita, 12 puntutatik 11 bereganatu ditu Eibarko taldeak. Zarazape Pulpo izan da bere multzoko bigarren sailkatua eta, beste multzoko goiko biekin (Tolosa eta Bidasoa Irun) hurrengo faseko laukotea osatuko du: fase hori apirilaren 20tik 22ra jokatu du.

Aristi txirrindularia gazte onena Gara Torneoan

MIKEL ARISTI DEBABARRRENAN AURTEN DEBUTATU DUEN TXIRRINDULARIA

da hasiberrien mailako liderra urtero Garak txirrindulari afizionatuen artean antolatzen duen Torneoan. Horrez gain, bergararra zazpigarren postuan dago Lehendakari Txapelketan, Aitor González taldekidearen atzetik: azken honek, Eibarko taldearen ordezkari onenak, lidergoa galdu du eta 3. postuan dugu kokatuta une honetan.



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 fax: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33


ZULOAGATARREN, 7



XXXV. Antzerki Jardunaldiei agur esateko momentua iritsi da, eta kaixo esateko momentuan bezala, euskarazko antzezlari bat egongo da ikusgai. Felix Arkarazo, Itziar Atienza eta Joseba Apaolazaren eskutik 'Ipar haizearen kontra' obra datorkigu, kritika onenek bermatuta.

JOSEBA APAOLAZA, aktorea:

"Teknologia berriekin aldatu egin dira harremanak"



- 'Ipar haizearen kontra' antzezlanean Leo Leikerena egiten duzu, Emmi Rothner internet bitartez ezagutzen duena. Zer da hortik abiatuta gertatzen dena?

Istripu bidez edo ezustean ezagutzen den bikotea da aurkezten dena, eta aurrez aurre ezagutu gabe muturreraino maitemintzen dira. E-mailen bidez elkar ezagutzen doaz, erabat maitemindu arte.

- Paradoxikoa izan daiteke, hotza edota inpersonala ematen duen zerbaiten bitartez, maitasuna bezalako zerbait beroa sortzen baita.

Horrela da. Aztertzen ditugun gaiak betikoak dira, giza-kiak bezain zaharrak: maitasuna, fidelotasuna, konpromisoa, abentura nahia... Aldatzen direnak ahalbideak dira. Lehen gutun bidez egiten zen eta denbora tartea zegoen. Gaurko ahalbide eta teknologia berriei esker, harremanak beste era batekoak bilakatu dira. Istoria hau muturreraino eramandako zerbait da.

- Bitxia da, maitasun istorioa izanda, aktore bien artean ez dagoela kontaktu fisikorik.

Horrela eskatzen du antzezlariak. Mundu paralelo bi irudikatzen ditugu, aislatuak direnak. Horrek funtzioan gure begiak elkartu gabe lan egitera eramán gaitu; bitxia da.

- 30 saiotik gora egin dituzue. Nolako harrera izan du antzezlariak?

Ezinhobea. Besteak beste, Ercilla Saria eman digute. Ongi etorria da eta obrak kalitatezko zigilua duen seinale. Horretan Fernando Bernués zuzendariak asmatu egin du, taularatze orduan obrari eman dion itxura eta amaieran batez ere. Jendeak asko goraiatu du hornikuntza hori.

- Eibarko Antzerki Jardunaldiak ixteko ardura edukiko duzue...

Ez nekien! Eta euskaraz egiten den bakarrenetarikoa izango da, ezta?



- Euskarazko batekin ekin zitzaizkien jardunaldiei, euskarazko batekin amaitzeko.

Euskaraz egitearena goraiatu nahi dut, guretzat ere erronka handia izan baitzen bertsio biak une berean estreinatzea. Toki batzuetan euskaraz eta beste batzuetan gaztelaraz egiten dugu obra. Oso harro gaude. Obra zorrotza da, Itziar Atienza eta bion artean egiten dugu gehiena, testu askorekin, eta euskara eta gaztelaraz batera egitea erronka da, baina harrotasunez hartzen dugu. Eibarren euskaraz egitea gustora hartzen dugu, desafio polita da, eta espero dut jendearentzat interesgarria eta erakargarria izatea.

Argazki diseinuaren inguruko rakusketa

BARIXAKUAN INAUGURATU ZUTEN UNTZAGAKO JUBILATU ETXEAN

apirilaren 4ra arte ikusgai izango den argazki erakusketa: "Argazki diseinua. Irudi digitala". Ohiko ordutegiari jarraituta egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domeketan, 12.00etatik 14.00etara.



Kokein-en bideoklipa grabatzen

ZAPATU ARRATSALDEAN GRABATU ZUEN KOKEIN TALDEAK BERE AZKEN LANERAKO bideoklipa: taldeak egun batzuk lehenago egindako deialdiari erantzunez, lagun mordo animatu zen "extra" moduan jardutera eta, makilatu ostean, emaitza beneratzen ikusgarria eta beldurgarria izan zen.



Sostoa abesbatzaren aktuazioa, Jesus Mari Sagarnoren zuzendaritzapean. / EKHI BELAR

Sostoaren kontzertu sakroa

ZAPATU ILUNTZEAN SOSTOA ABESBATZAK, AZKOITIKO IRAURGI ABESBATZAREKIN batera, kontzertu sakroa eskaini zuen Karmelitetan. Eibartarrek hilaren 31n bueltatuko diete bisita azkoitiarrei, han eurekin batera kontzertua eskainita.

Usartzako Erromeria domekan

MARTXOAREN 25-EAN, DOMEKAN, OSPATUKO DA USARTZAKO ERROMERIA, Angel Pérez Sarasketa soinu-joleak, Narbaitza eta Meabebasterretxea bertsolariek eta Kezka dantza taldeak girotuta. Krabelin jatetxean 14.00etan egingo den bazkarirako txartelak 30 eurotan bertan salgai daude eta menua honakoa da: vieira gainerrea, arrain-zopa, legatza laban, postrea, ogia, edariak eta kafea. Bazkalostean, iaz egindakoaren bidetik, nahi beste dantza egiteko aukera izango da.



Iaz berreskuratu zuten ohiturak jarraipena izango du asteburuan. / MAIALEN BELAUSTEGI

Tangoa eta Morau Karrikan


GAUR 23.00-ETATIK AURRERA EL CACHIVACHE TANGO ARGENTINAKO TALDEAK TANGO-EMANALDIA eskainiko du zuzenean Karrika tabernan. Eta domekan, 19.00etatik aurrera Morauk




euskal kantagintzaren historia-
ren errepaso egingo du, "Euskal kantagintza 1961-1990" izenburuko hitzaldi-musikatu-
an. Horrekin batera, eguenerako "Back to black" izenburuko ekimena abiarazi dute eta, euren berbetan "Karrika egueneran binilozko diskak kalera ateratzeko gunea bihurtu nahi dugu, pintxo-poteari laguntzeko musika lasaia ipinita 20.00etan hasi eta gauerdira bitartean".

Esther Agirre Topalekuan

BARIXAKUAZ GEROZTIK ESTHER AGIRREAREN "LEGAZPIKUA" ERAKUSKETA DAGO IKUSGAI Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Domeka izango da Agirrearen margolanak ikusteko azken eguna: gaur 19.00etatik 21.00etara egongo da zabalik aretoa eta bihar eta etzi, berri, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



Antzerki jarunaldiak



Martxoak 23
20.30
Unibertsitatean

"In verso: de sapos..." Armadanzas

IRENE ALONSO, PAZ BROZAS, VÍCTOR MARTÍNEZ, TERESA GARCÍA

Bertsoa esateko gorputzaren posizio erosoan eta arraroenetik abiatuta, dantza eta poesian berezkoak diren irakurketa eta idazkera prozesuetan erabiltzen diren paralelismo eta metaforetatik sortzen da lan honen zentzua. Antzerki unibertsitarioren gaurko erredua.




Martxoak 24
20.30
Coliseoan

"La Máquina Hamlet" Grupo El Mayal

ALBERTO ANUNCIBAY, PATRICIA GIMÉNEZ, JARA CASANOVA, SANTI G. VIDAL

Shakespearearen drama deseraikitzen dute lan honetan, galbahe handi batean bihurtuz eta bertatik pasa araziz XX. mendeko gaitz handienetarikoa izan zen boterearen totalitarismoa eta bere basakeria. Millerren haustura formal inspirazio iturria izan da askorentzat.



Martxoak 27 & 28
20.30
Coliseoan

"El Nacional" Els Joglars

RAMON FONTSERÈ, BEGOÑA ALBERDI, JESUS AGELET, PILAR SAENZ

Opera Nazionaleko Antzokiko aretozain ohi zaharkitua da protagonista. Degradatua eta orain zereginik ez duen Don Josek entzerki-gintzaren sinboloa den Rigoletto taularatu nahi du berriro; fantasia gauzatzeko, eskalez eta kale musikariz inguratuko da.



XII. Asier Errasti Laburmetraien Jaialdia

Laburmetraien mundua, une zailtara ohituta egoteaz gain, oso gutxiarekin moldatzen da. Gainera, ausardi handia erakusten du: gaietan, hizkeran eta narrazioen egiturari. Horrez gain, gaur egun euskarri merkeak ere baditu.

Martxoak 29
17.30/21.00 / Unibertsitatean

laburrak

ETXEBERRIAREN HITZALDIA
Martitzenean, hilaren 27an, Roberto López Etxeberria moda-disenatzaileak hitzaldia emango du 10.00etatik 12.00etara Armeria Eskolan, Ikastenen ohiko programazioari jarraituta eta Esperientzia Eskolarekin elkarlanean antolatutako ekitaldian. Hitzaldira sartzea, urteko beste saioetan moduan, librea izango da interesa duen edozeinentzat.

ARGAZKI LEHIAKETA

Ixua-Valenciaga Memoriala argazki lehiaketa antolatu du Eibarko Txirrindularien Elkartek. Parte hartu nahi duenak maiatzaren 4ra arte izango du horretarako aukera, lanak Eibarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3 behe) entregatuta. Informazio gehiago eskuratzeko cce@clubciclistaeibarres.org helbidera idatzi daiteke.

MENDI-HITZALDIAREN EGUN ALDAKETA

Datorren egunerako Klub Deportiboko mendi taldeak antolatuta iragarrita zegoen "Jaizkibel, eskalatzeko blokeen paradisua" barixakura pasa dute, 29ko greba orokorra dela-eta. Mikel Martiarenak eskainiko duen hitzaldia 19.00etan hasiko da Deporren eta pintxo-poteoa ere egongo da.

EGOAZIA ALDIZKARIA

Egoazia Gobernu Kanpoko Erakundeak jakitera eman duenez, Egoazia 2012 aldizkaria argitara eman dute. Aldizkaria musutruk hartzeko aukera izango da Pegoran eta Portalean, besteak beste. Horrez gain, Egoaziaren webgunean on line irakurtzeko aukera ere badago. Aldizkarian Aldatzeko GKE-k garapenerako egindako beharren berri ematen dute.

"Euskararen transmisioa" mintegia maiatzean

EUSKARAREN TRANSMISIOAREN INGURUKO MINTEGIA HARTUKO DU PORTALEAK MAIATZAREN 8-AN

(martitzena), ...eta Kitto! Euskara Elkartek Udalaren laguntzarekin antolatuta. Iaz eginda-koaren bidetik, mintegia irakasleei, euskara teknikariei, euskara elkarteetako beharginei eta aisialdiko elkarteetan dihardutenei zuzenduta dago eta izena emateko epea apirilaren 16an zabalduko da (izena eman nahi duenak ...eta kitto! Euskara Elkartera jo dezake, 943-200918 telefono zenbakira deituta edo normalizazioa @etakitto.com helbidera idatzita). Egun osoko iraupena izango duen jardunaldian parte-hartu nahi duenak 20 euro ordaindu beharko ditu eta prezioaren barruan bazkaria sartuta dago.

Egitaraua egun osokoa da, 09.00etan hasita eta goizeko saioan honako hitzaldiak eskainiko dira: "Transmisioaren kontzeptuarekin bueltaka. Begira-




Iazko edizioaren arratsaldeko saioan eskainitako mahaingurua. / SILBIA HERNANDEZ

da bat gizarte antropologikotik


(Jone M. Hernandez Gizarte Antropologian doktorea eta EHUko irakaslea), "Eman gilitza: hizkuntza transmititzeko modurik naturalena" (Alkarbide, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilgunea), "Irungo familietan euskararen ondorengoe-taratztea sendotzeko plana" (Irungo Euskara Zerbitzua), "Familia barnetegiak" (AEK) eta "Hizkuntza sustatzeko tailerra, gure esperientzia" (Gemma Sanginés. Psikologoa. Ta-

llers per la Llengua-ko bokala). Bazkalostean, berriz, iazko mintegian parte hartu zuen Paula Kasares Soziolinguistikan doktoreak eta Euskaltzain urgazleak jardungo du berbetan, "Gurasoek nola, umeeek ala?" eta haurrek euskaraz egitea zertan datzan argitzen lagunduko diguten beste galderak" izenburuari jarraituta. Eta saioa agurtu aurretik, Urtxintxa eskolako Jaime Altunak moderatuko duen mahai-ingurua egingo da.

Ego Ibarraren liburu berria laster eskuragarri



EGO IBARRAK KALERATUKO DUEN 39. LIBURUA, KOLDO LIZARRALDE IKERLARIAREN "Ingenios hidráulicos en Eibar. Molinos, ferrerías, barrenas, ruedas y centrales eléctricas", laster interneten eskuratzeko moduan egongo da. Ego Ibarratik azaldutakoari jarraituta, "liburuan Eibarren izan diren errota, ola edo burdinola, barrenas, errotarri eta zentral elektriko guztiak ematen dizkigu eta ez dira gutxi, gainera". Liburua internet-en jarriko dute, alde batetik PDF edizio gisa eta, bestetik, e-pub erara, gaur egun dauden gailuetan jasotzeko moduan.



Hainbat ikusle Jodraren lanen berezitasunak aztertzen. / LEIRE ITURBE


Susana Jodraren serigrafiak Portalean

ENGRANAJE ITXURAKO GURPI-LAK ERABILITA SUSANA JODRAREN


sortutako artelanek osatutako "Talde-kako mugimendutik bakardadeko gelditasunera" izenburuko erakusketa apirilaren 1era arte egongo da ikusgai Portalean, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, NORA, domekan hiru urtetxo egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, lkerren partez.




Zorionak, UNAX, martitzenian zazpi urte bete zenduazelako. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ITSASO, atzo urtetxo bat egin zenduan-eta. Aitxitxa eta amamaren partez, muxu potolua: Muaa!!




Zorionak, MARIA, astelehenian etxeko printzesak urtebete egingo dabelako. Patxo potolo bat famelixaren partez.




Zorionak, MAIALEN, eguaztenian hiru urte bete zenduaz-eta. Patxo potolo bat aitaxo, amatxo eta lbairen partez.



Zorionak, SARA, haraiñegun 23 urte egin zenduaz-eta. Izaro, Laura eta Janireren partez.



Zorionak, MARKEL (gaur hamahiru urte egitten dozuz) eta OIHANE (astelehenian zortzi egingo dozuz). Famelixaren partez.



Zorionak, IZASKUN (53 urte) eta JON (6 urte), gaur urtiak egitten dozuez-eta. Egun oso ona pasau! Muxu bat famelixaren partez.




Zorionak, IHART, haraiñegun lau urte bete zenduaz-eta. Famelixa guztiaren partez, potxola!!




Zorionak, ANE Azpiri, hillaren 27xan sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Ongi etorri, PELLO, martxuaren 14an gure artera etorri ziñan-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, AINARA (bixar bost urte) eta ANE (hillaren 5ian bi egin zenduaz-eta). Eibarko amama eta aitxitxaren partez.



Zorionak, FELIPE (hillaren 6xan) eta JONE (21ian) urtiak bete dozuez-eta. Famelixaren partez.



Ongi etorri, martxuaren 13an jaixotako JULEN-i. Eskerrik asko famelixa osatziagaittik.


zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

23an: 22.30
24an: 17.00, 19.45, 22.30
25ean: 17.00, 20.00
26an: 20.30

"The Artist"

Zuzendaria: M. Hazanavicius



(2 ARETOAN)

23an: 22.30
24an: 22.30
25ean: 17.00, 20.00
26an: 20.30

"Katmandú, un espejo..."

Zuzendaria: Iciar Bollain



(ANTZOKIAN)

23an: 22.30
24an: 17.00, 19.45
25ean: 17.00, 20.00
26an: 20.30

"Blancanieves. Mirror..."

Zuzendaria: Tarsem Singh



HILDAKOAK

- Juana Arrieta Etxeberria. 88 urte. 2012-III-16.
- Josefa Arana Ugarteburu. 91 urte. 2012-III-16.
- Jaime Ibarra Beaskoa. 58 urte. 2012-III-16.
- Pedro Belastegi Larrañaga. 94 urte. 2012-III-16.
- Vicenta Gutiérrez Gutiérrez. 87 urte. 2012-III-16.
- Inocencio Cejudo Huerta. 77 urte. 2012-III-17.
- Alberto Ajo Cano. 55 urte. 2012-III-18.
- Carlos Gutiérrez Gutiérrez. 66 urte. 2012-III-19.

JAOTAKOAK

- Omar El Wali. 2012-III-11.
- Garazi Egurrola Mugerza. 2012-III-11.
- Telmo Agote Gutiérrez. 2012-III-13.
- Sara Luque Gómez. 2012-III-13.
- Danel González Calvo. 2012-III-14.
- Pello Alberdi Minondo. 2012-III-14.
- Ane Atxa Luis. 2012-III-15.
- Taysser Brouyajil. 2012-III-17.

horoskopoa

ARIES

Zure arbasoen historiaren zati bat ezagutuko duzu eta erabat harrituko zaitu. Harro sentituko zara hori jakin ostean? Edo lotsatuta akaso?

TAURUS

Gauzak nola kontatzen diren arabera, zentzu bat edo bestea hartzen du. Baliteke, horregatik, gaizkiulerturen bat gertatzea zure lagunaren artean.

GEMINI

Nahiko lanpetuta ibiliko zara datorren astean eta gero eta urduriago. Saiatu gauzak lasai hartzen, hobeto egingo dituzu-eta.

CANCER

Egunak joan, egunak etorri, konturatzen zara ezer gutxi egiten duzula natura zaintzeko. Ez laga beste egun bat gehiago pasatzen.

LEO

Toki guztietan begiratuko duzu, mundu guztia zoratuko duzu gauza horren bila ibiltzeko, baina ez duzu zortirik edukiko. Ahaztu ezazu.

VIRGO

Zein sartu da zure gorputzaren barruan? Beste pertsona bat zarea ematen du! Agian exorzismoa egin beharko dizute, ezer baino lehen

LIBRA

Asteburu aztoratua duzu aurretik. Milaka plan, ehundaka konpromiso, pila bat zita... ea dena egiteko aukera izaten duzun! Gauza asko dira gero.

SCORPIUS

Laranjak, sagarrak, madariak... badakizu fruituak direla, ezta? Ba horrelakoak jatea komeni zaizu! Laga alde batera litxarrerria horiek!

SAGITTARIUS

Aste Santua ate joka dauka, baina ordura arte gogor egin beharko duzu lan. Hori bai, gero ederki gozatuko duzu atsedean egunetan.

CAPRICORNIUS

Aldaketa txikia somatuko duzu zure bizitzan datorren astetik aurrera. Ez zara momentuan konturatuko, baina igarriko duzu etorkizunean.

AQUARIUS

Toki txarretan ibili zara, baina bihar ezgutu duzun lekua oraindik okerragoa izango da. Argazkiak atera, bestela lagunak ez dizute sinestuko.

PISCIS

Maiate dituzun pertsonekin pasatzen dira une onenak.. Gozatu minutu bakoitza euren alboan, mereziko du-eta. Berandu izan aurretik

Barixakua 23**TAILERRA**

17.30.- Euskal kantu eta jolas-tailerra, Esti Gonzálezek eskutik, ..eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan-en barruan antolatuta. Portalean.

UDABERRI JAIA

19.00.- Triki-poteoa, herriko tabernetatik.
21.30.- MP5 erromeria taldearen emanaldia Gaztetxean.

ANTZERKIA

20.30.- "In verso: de sapos y lunas", Armadanzas, Univ. de León. Coliseoan. Sarrera: 5 euro.

MUSIKA EMANALDIA

23.00.- El Cachivache Tango Argentinako taldearen tango emanaldia zuzenean. Karrika tabernan.

Zapatua 24**TXANGOIA**

09.30.- Salinillas de Buradon (Errioxa) ezagutzeko txangoa, Arrate Kultur Elkarteak antolatuta. Irteera Ego Gainerako autobus geltokitik.

ARMERIA ESKOLAKOEN BATZARRA

10.00.- Ziurtagiriak eta krabelinak banatzea.
12.30.- Argazki ofiziala eta hamaiketako.
13.00.- Argazki-lehiaketako sariak banatzea.
13.15.- Antonio González Barro, Intercom Taldeko presidentearen hitzaldia: "Qué hacen, cómo son las personas emprendedoras".
14.00.- Eskola bisitatzea.
14.30.- Bazkaria, Armeria Eskolako patioan.

MANIFESTAZIOA

13.00.- "Alfan inposaketarik ez! Erreformarik ez". Untzagatik hasita.

ANTZERKIA

20.30.- "La máquina Hamlet", El Mayal, Univ. de León. Coliseoan. Sarrera: 5 euro.



Martxoko azken domekan (hau da, etzi) udaberriko ordutegia sartuko da indarrean. **Zapatutik domekarako goizaldeko 02.00ak ailegatzean, erloju guztiak ordubete aurreratu egin beharko ditugu, 03.00etara.** Ofizialki **ORDUBETE GUTXIAGO izango du asteburu honetako domekak.** Horrela, agur esango diogu urriaren 24az geroztik indarrean izan den neguko ordutegiari. Udako ordutegi honek **urriaren 28ra arte iraungo du;** egun horretan negukoak jarriko da berriro indarrean.

Domeka 25**USARTZAKO ERROMERIA**

14.00.- Bazkaria eta, jarraian, erromeria, Angel Pérez Sarasketa soinu-jolearekin, Narbaiza eta Meababasterretxea bertsolariarekin eta Kezka dantza taldearekin. Arrateko Krabelin hotelean.

HITZALDI MUSIKATUA

19.00.- Morau. Euskal kantagintza 1961-1990 (hitzaldi musikatua irudiek). Karrika tabernan.

Astlehena 26**KULTUR ASTEA**

18.30.- Hitzaldia (frantsesez). Hizkuntza Eskolaren Kultur Astearren barruan. Hizkuntza Eskolan (Jardiñeta, 3).

Martitzena 27**IKASTEN**

10.00.- Modari buruzko hitzaldia, Roberto López Etxeberriaren eskutik. Armeria Eskolan.

TAILERRA

16.00.- Emakumeentzako enplegu tailerra. Kzgunean.

KULTUR ASTEA

18.30.- Kontzertua (ingelesez): Dsubstitutes. Hizkuntza Eskolaren Kultur Astearren barruan. Portalean.

ANTZERKIA


20.30.- "El nacional", Els Joglars. Coliseoan. Sarrera: 15 euro.

Eguaztena 28**IKASTEN**

10.00.- "La vida puede comenzar a los cincuenta", Marisol Gisasolaren eskutik. Armeria Eskolan.

KULTUR ASTEA

17.30.- Hitzaldia (alemanieraz): "Klein, aber fein!", Alexi Hoferren eskutik. Hizkuntza Eskolaren Kultur Astearren barruan. Portalean.
18.30.- Ikus-entzunezkoa (euskaraz): "Lurra, lurra". Hizkuntza Eskolaren Kultur Astearren barruan. Hizkuntza Eskolan (Jardiñeta, 3).

**MANIFESTAZIOA**


19.00.- Lan-erreformaren kontra, grebarekin bat. Untzagatik.

ANTZERKIA

20.30.- "El nacional", Els Joglars. Coliseoan. Sarrera: 15 euro.

Eguena 29**ANTZERKIA**

17.30 eta 21.00.- Zinea: XII. Asier Errasti Laburmetraia Jaialdiko laburmetraiak. Hezkuntza Esparruan. Sarrera doan.



erakusketak

- Martxoaren 25era arte
ESTHER AGIRRE GARZIANDIAaren margo erakusketa. *Topalekuan.*
- Martxoaren 31ra arte
JUAN IGNACIO AIZPURUAaren "Lehen urratsak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- JOSE LUIS MARTINEZ**en "Bardeak" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- "**BALENTZIAGA OROITZARREA.** Ixuako mendatea" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- "**EMAKUMEAK: NOBEL SARIAK**" informazio-topagunea. *Juan San Martin liburutegian.*
- IKER IGLESIAS**en "Txina" argazki erakusketa. *Debegesan.*
- Apirilaren 1era arte
SUSANA JODRAaren "Taldeko mugimendutik bakardadeko gelditasunera". *Portalean.*
- Apirilaren 1era arte
EINER RODRIGUEZ PONCEren "Argazki diseinua. Irudi digitala". *Untzagako jubilatutxean.*

lehiaketak

- **Haurrentzako I. Ipuin Lehiaketa.**
Norentzat: 8 eta 12 urte bitartekoentzat, euskeraz eta gazteleraz. Informazioa eta lanak entregatzea: **Aprilaren 14ra arte**, El Corte Inglés-en.
- **Ixua-Valenciaga Memoriala argazki-lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: **Maiatzaren 4ra arte**, Elbarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3 behe), cce@clubciclistaibarres.org.

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 15.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

farmaziak

- 23, barixakua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 24, zapata**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- 25, domeka**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 26, astelehena**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- 27, martitzena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 28, eguaztena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 29, eguena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 30, barixakua**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

		5	7	1	4	2	
	3	2				8	1
	1	7				4	6
			2		5		
	5	8				7	3
	2	3				9	4
		6	3	4	8	5	

DENBORAPASAK

9	4	8	5	6	3	7	2	1
7	6	5	8	1	2	3	4	9
2	3	1	4	7	9	6	8	5
6	7	4	9	3	1	2	5	8
0	0	9	6	2	5	4	1	7
5	1	2	7	8	4	9	3	6
1	2	0	3	5	7	8	9	4
8	9	3	1	4	6	5	7	2
4	5	7	2	9	0	1	8	3

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. Ilogailuarekin. 130 m². Guztiz berritua eta argitsua.. Tel. 626-203838.
- 22 m²ko terraza duen 84 m²ko atikoa salgai Eibar erdialdean. Berria. Garajea eta trasteroa aukeran. 260.000 euro, BEZ-a eta guzti. Tel. 647-952677.
- Pisia salgai T. Etxebarria kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua eta aukera askorekin. Tel. 659-208746.
- Pisia salgai. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Kalefakzioarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 156.263 euro, negoziagarriak. Tel. 695-851722.
- Pisia salgai Amañako plazoletan. 2 gela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 100.000 euro. Tel. 685-728995.
- Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Ilogailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Conilen "Playa El Palmar" etxea alokagai, abuztuan izan ezik. Hondartzatik 500 metrora. Logela bi, lorategia eta parking-a. Merke. Tel. 607-310266.
- Pisia alokagai Bidebarrieta 28an. Tel. 652-764566.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Renault Scenic autoa salgai. Gasolina. 2009ko irailen matrikulatuta. 43.000 km. Tel. 605-721711
- Opel Astra 1.6 salgai. 75cv. 212.000 km. Olia eta gurpilak aldatu berri. Sony irratia mp3 irakurlearekin. 1.500 euro, negoziagarriak. Tel. 686-234684. Mikel.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Neska talde batek lokal bat hartuko luke alokairuan, bainuarekin. Eibarren, Urkizu aldean ahal bada. Tel. 697-532570.
- 60 m²ko lokala (zatigarria) alokagai Otaola hiribidean. 24 urteik gorako koadrilentzat eta musika-taldeenentzat egokia. Tel. 681-303507.
- Garajea alokagai Arrate-Biden. Itxia, behe solairuan eta garbitegiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.
- Lokala alokagai Ubixa kalean. 100 m². Behe solairuan. Iteera zuzena kalera. Tel. 617-688311. Maria.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Asua-Errekan garaje txikia alokagai. Prezio onean. Tel. 652-700919 eta 666-845249.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 676-244793.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-784360.
- Mutila eskaintzen da lantegiak garbitzeko, txofer edo banatzaile jarduteko eta okindegian lan egiteko. Tel. 689-286167.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 649-770161.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 636-581194.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 619-041821.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-665395.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-910182.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Externa. Tel. 943-029329.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-257684.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-150376.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 690-134485.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084 eta 943-257815.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-052165.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 683-562630.
- Mutil arduratsua eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta igeltsero lanak egiteko. Tel. 692-332871 eta 943-257815.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 690-861846.
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 635-237518.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 628-318570.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 650-152866.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 695-303237.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 695-303237.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 695-303237.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore-laguntzaile moduan eta sozietateak garbitzeko. Tel. 647-898016.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-249775.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 647-266965.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-778839.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
- Neska eskaintzen da kamarera jarduteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 626-497413.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile

- le-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 695-705617.
- Mutila eskaintzen da arutz jarduteko, baserrian lan egiteko, nagusiak zaintzeko etabar. Tel. 682-290521.
- Geriatrian eta psikologian esperientzia duen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 635-313375.
- Mutila eskaintzen da pintore jarduteko, igeltsero-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-798768.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 689-798284.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-029329.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Esperientzia. Tel. 690-925929.

4.2. Langile bila

- Ostalaritza aprendiz behar da (30 urteik behera). Kontratua eskainiko zaio. Eibarko 150 postakutxa.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Psikologian eta Psikopedagogian lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. Tel. 628-591462.
- Ingeniaritza titulodun neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 670-251265.
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditu. Tel. 638-855268.
- DBHko Zientziak arloko klase partikularrak ematen dira. Tituluduna eta esperientziarekin. Tel. 636-385156.
- Atzerriko Hizkuntzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditu. Tel. 651-503971.
- Ingeniari kimikoak klase partikularrak ematen ditu: LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

6. Denetarik

6.1. Salgai


- Sofa salgai. Narruzkoa eta beige kolorekoa. 1'5 metrokoa, bi lagunendako aproposa. Borondatea jasoko genuke. Tel. 652-759077.
- Jatetxea itxi dugula-eta, hainbat artikulu saltzen ditugu, karpa bat tartean (oinarrizko makinaria ez). Tel. 677-638184.

6.2. Eman

- 3 hilabeteko txakurkume emarentzako etxe on bat behar dugu. Txertatua. Arraza txikiakoa. Pisu batean bizitzeko aproposa. Doan. Tel. 615-756155. Iñigo.

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**

**AUTO
ESCUELA**


CURSOS INTENSIVOS

**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK



San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



Euskararen Transmisioa

II. MINTEGIA

2012-V-8 (asteartea) Portalea Kultur Etxean

Egun osoko
EGITARAUA

INFORMAZIOA
ETA IZEN-EMATEA:

...eta kitto! Euskara Elkarte
943-200918
normalizazioa@etakitto.com





bista eder

clinica dental - hortz klinika



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75